


Euskal literaturaren Donostia



Joan den astean "Donostia, hiri bat literaturan, literatura baten hiria" liburua plazaratu zuen Alberdania argitaletxeak, Euskararen Udal Patronatuaren laguntzaz. Koldo Izagirre idazleak egin du Donostiarekin lotutako poesia eta prosa antologia hau. Hona hemen liburuaren zenbait pasarte.

«Donosti atalak» Ramon Intzigarai, 1930

Ur gezala...

Donostiaren jantzi urdin gain-atala;
au asaldatzen ez da zalla:
puztutzen danez kresal-salla,
Donostiyari bustitzen dizka
arpegi, kokotza, masalla... (...)

O, Bretxa, Bretx...!

Asto-kaletik sar liteke
errex-errex.

Alper askoren atariya,
zalantzan beti dendariya,
andre kaitarrak ojuka berriz:

"Oraingo bokarta biziya...!

Bulebarra,
eguzkiyak berotzen duen
lur izara.

Jausten danen kaskabarra,
sortzen da loya, txotxabarra:
orduak ez da naiko izaten
zirazko soñeko txamarra.

Abenida...

Ortik aurrera Donostiya arrunt il da!...

Or ez da bizi gure euskara,

Bai noski ero-par-algara...


Esaten dute or asten dala

Guadala... Guadala... lajara! (...)

«Bereibilez»

Jean Etxepare, 1931

(...) Uste baino baino urrunago kausaturik Donostia, otomobilen gidariek akulatzen dute zoinek gehiago bere zaldia. (...) Kilometra andanaño baten buruko, gure ezkerretarikako bizkarra goratzen da, mendixka bat egiterainokoan. Ohartzen naiz hunen gainean eraikia den hotel handiari. Begien aitzinean dugu geroztik igeldo deitzen duten mendiñoa; helduak gara Gipuzkoako hiri-nausirat. Huna, zolan, hiriko karrikak; huna, ezkerretarik, itsasoa berriki ginion artekatik hiriraino sartzen den muttur-manutsa (...). Huna oraino, gure eskuinetara lerdoin batzudena jauregiz estaliak: hotarik ederrena lehen maillean, gorrats, luze itzalpe batzuekin harateko aldetik: erregeren eta hunen familiaren udako egoitza. Tranbiek, automobilen ugariak, oinkarien usuak, alde orotarik beharrietarat hel-tzen zaikun burrunba bitxiak, hiriko zer guztiek, hots, erne baino ernego ezartzen gituzte eta orozbat herabertzen. Gainera, soldadoz eta hirizainez ebro etzaikula ateratzen zoko guzietarik! Xuxen ibiltzeko duke hemen gizonak, nornahi izan dadin. (...)



«Faxistak Donostian», Nemesio Arizmendi, 1936



Faxistarrak hasi dirade
Donosti dana lapurtzen
abertzalien etxe ta denda
ondasun danaz jabetzen.
Ez dakizute Jaunan legiak
ez dula ori agintzen?
Oroitu danak gauzak ditula
jira ta bira egiten.

Gauza guztiak ludi onetan
badute beren aldia,
ala zuentzat etorriko da naiko istillu gorria.
Orduantxe bai faxistarekin
egingo degu peria:
karka danari esanez dala
txandan-txandan odolkia. (...)

«Ez dago halako mailako elaberriak dituen beste euskal hiririk»

Koldo Izagirrek (Altza, 1953) lan handia egin du "Donostia hiri bat literaturan..." liburua osatzeko. 32 egileren idatziak bildu ditu Izagirrek, denak 1901etik 2000ra idatzitakoak.

Donostia euskal nobelaren hiri bila-katu dela diozu. Baina, zer du Donostiak Euskal Herriko gainerako hiriek ez dutenik?

Ba oso gauza ximplea eduki du Donostiak, beste hiriburuek eduki ez dutena: nobelagileak, eta nobelagile horiek Donostian kokatu izan dituzte beren fikzio batzuk. Agustín Anabitartek "Donostia" izenekoa argitaratu zuen gerraurrean, hemeretzigarren mende amaieran giro-tua, hiriarren bizia ederki erreturatuz. Ramon Saizarbitoriak berriz "Ehun metro"-ren trama Donostian moldatu zuen, eta nobela horretan Donostia bera da protagonista neurri handi batean, bere geografia, bere gaztelania merkea, bere topiko guztiak oinarritzakoak dira trama garatzeko. Txillardegiren laugarren nobela, "Haizeaz bestaldetik", Donostiaren ebokazio xehe eta zehatza da. Joxe Austin Arrietaren nobelagintzan ere Donostiak berebiziko garrantzia dauka, bai "Abuztuaren 15eko bazkalondoa"-n, bai "Manu Militari"-n... Ez dago halako mailako elaberriak dauzkan beste euskal hiririk.

Zergatik antologia bat? Jasotako idatzien artean, zeinek hunkitu zaitu gehien?

Antologia ez da *mostra* bat besterik, antologia oren funtzioa gehiago jakitera, gehiago irakurtzera, erakusten

ez denaz ere dastatzera bultzatzea da.

Hautaketa bat egin dut testu mordo batetik. Ez nuke nahi antologiaren antologia egitea.

Zaila al da mota horretako lan bat egitea? Zein oztopo aurkitu dituzu?

Zaila da, asko idatzi baita Donostia kokaleku edo erreferentzia hartuta. Lehen oztopoa orrialde kopurua da, ezin da nahi den guztia sartu... Antologia hau ez da poemena soilik. Alde horretatik, bikoitza da egin dudana bekatua, besteen artean aukeratutako testuak berak ere moztu egin behar izan baititut... Baina barkatu egin dinate. Idazle guztiek kolaboratu dute, beren baimena emanez, antologia hau posible izan zedin. Uste dut merezia dutela donostiar literaturtzaleen esker ona.

«Altza»

J. M. Irigoien,
1974

Zu zinen
nire jaioterri.
Ume nintzenean
zure odola berde-berdea zen,
eta zure magalean
aurkitu nuen ama lurra.
Ume nintzenean
mundu guztia agurtzen zen.
Zure odol berdean,
pinpilipauxak, zoriak, errekak, zuhaitzak,
gizon emakumeak...
Izadia nuen maite!
Otso diru-zurruapatzaileak
etorri ziren arte.
Aurrerapenaren izenean
errekak zikindu,
airea kirastu eta
mila pisuko deabruak
altxatu dituzte. (...)
Ume nintzenean
nire etxeko leihoak
askatasun bideak ziren.
Orain berriz,
preso baten leihoak dira.

